

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2016ko OTSAILAREN 11an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko otsailaren 11an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


**ZINEGOTZIAK:** Gotzon Jauregi Sarasola  
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
Ander Leon Nanclares  
Angel Serrano Martinez  
Felix Joaquin Asensio Robles  
Aritz Sarria Saraqueta

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2016ko urtarrilaren 14an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 14 de enero de 2016.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2016 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespina ematea, hala bada./ Aprobación inicial del expediente del presupuesto general del Ayuntamiento para el ejercicio 2016.**
- 4. Erniozaleak Kultur Elkartek eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada/ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Erniozaleak Kultur Elkartea.**
- 5. Larraul, Ernio Larraul, mendi lasterketaren 2016 urterako diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada/ Solicitud de ayuda económica para la carrera de montaña Larraul, Ernio, Larraul del ejercicio 2016.**
- 6. Tolosaldeko Hiltegi mankomunitateari 2016 urteari dagokion ekarpenaren onspena, hala bada./ Aprobación de la aportación económica correspondiente al ejercicio 2016 a Tolosako Hiltegi Mankomunatuari.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la ayuda económica solicitada por Tolosaldeko Atariak.
8. Udalhitz negoziazio kolektiboari buruz EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak 2015-12-10ean emandako Gomendioari atxikitzea./Adhesión a la Recomendación de la Asociación de Municipios Vascos-EUDEL de 10-12-2015 referida a la negociación colectiva UDALHITZ.
9. Larraulgo Udala eta Aiztondo Klasikoa batzordearen arteko lankidetzahitzarmenaren onespena./ Aprobación de convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento de Larraul y Aiztondo Klasikoa batzordea.
10. XIII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2016 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada./Ayuda económica correspondiente a XIII. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.
11. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
12. Beste batzuk/Otros.
13. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2016 urteko urtarrilaren 14ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**


Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

01/2016 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 15ekoa, Pello Errota HLHIko zuzendariak eginiko obra baimena eskaera onestea, ebazten duena.

02/2016 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 26koa, 2015eko 4. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

03/2016 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 1ekoa, Hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berariazko oinarriak onartzea, ebazten duena.

04/2016 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 29koa, D.J.jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

05/2016 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 2koa, Larraulgo Eskolako Batzorde Eragileak eginiko eskaerak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### HIRUGARREN PUNTUA

### **2016 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2016 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2016ko otsailaren 2an egindako txostenean dioena.


Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuak aho batez ondorengo,

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2016 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 350.874,62 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

### GASTUAK

I. Kap. Pertsonal-gastuak	88.258,00
II. Kap. Ondasun gastuak	111.480,00
III. Kap. Finantza gastuak	520,00
IV. Kap. Transferentzi arruntak	57.624,00
VI. Kap. Inbertsio errealak	70.892,62
VII. Kap. Kapital Transferentziak	8.000,00
IX. Kap. Pasibo finantziarioak	14.100,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**GUZTIRA GASTUAK** **350.874,62**

### SARRERAK

I. Kap. Zuzeneko zergak	45.100,00
II. Kap. Zeharkako zergak	3.000,00
III. Kap. Tasak eta bestelako sarrerak	42.500,00
IV. Kap. Transferentzia arruntak	234.630,00
V. Kap. Ondare-sarrerak	3.610,00
VI. Kap. Inbertsio errealak inorenganatzeari	0,00
VII. Kap. Kapital-transferentziak	22.034,62
IX. Kap. Pasibo finantzieroak	0,00

**GUZTIRA SARRERAK** **350.874,62**

**BIGARRENA.-** 2016ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.


**HIRUGARRENA.-** 2016 urterako Plantila Organikoan eta Lanpostu zerrendan egindako aldaketak onestea. Hau da, administrari laguntzaileari Udalhitz konbenioaren 11 nibeletik 13 nibelera igotzea, C2 Taldearen barruan, dagokionak baino funtzio gehiagoetara iristen delako eta Herri langileari % 50 lanalditik % 64,28-lanaldira igotzea, lanaren beharrak handitu direlako. Ondoren, Alkate ebazpenaren bidez aplikazioa egin beharko da.

**LAUGARRENA.-**Udalbatzarreko kideei, ohiko udalbatzarretara etortzeagatik 200 euro ordaintzea dieta modura. Horretarako aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak aldatu direlarik.

**BOSTGARRENA.-** Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

**SEIGARRENA.-** Idazkari-kontuhartzaileak 2016ko otsailaren 2an egindako egonkortasun txostenean adierazitakoa onestea, non azaltzen den:

Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Ogasun eta Finantza Departamenduak argitaratutako jarraibideak (2015eko azaroaren 25ean publikatua GAOan) dioena aplikatuz:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzendukok dela bermatuko duena.*

*Era berean, entitate batek gastuaren araua bete ez badu, baina 1/2013 Foru Arauaren 5.artikuluaren laugarren paragrafoan jasotako baldintza guztiak, aldi berean, betetzen baditu, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezk, parágrafo horrek aurreikusten duen komunikazioa aurkeztu diezaioke Udalbatzari.*

*Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, planaren ordezk, komunikazio bat aurkeztu diezaiokete Udalbatzarrari, Kontu hartzaileak sinatua, entitatearen iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:*

- 2015eko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.
- 2016erako defizit eta zor helburuak betetzea.

Gauzak horrela, aurretik esandakoa betetetzearren komunikazioa aurkezten zaio Udalbatzarrari adieraziz:

- 2015eko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak direla.
- 2016rako defizit eta zor helburuak betetzen direla.

### **LAUGARREN PUNTUA**


### **ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik Erniozale Kultur Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten Zortzi Herrien arteko ibilaldia antolatu dutela, maiatzaren 15ean. Ibilaldia aurten Asteasun hasi eta bukatu da. Horretarako ibilbideak txukundu eta margotzea beharrezkoa egin da.

Goian aipaturikoa gauzatu ahal izateko, Larraulgo Udalari 333,00.-eurotako diru-laguntza eskaera egiten diote Erniozale Kultur Elkarteak.

Ikusirik 2014ean sinatutako, Erniozaleak Kultur Elkarteak, Aiako Udalak, Albizturgo Udalak, Alkizako Udalak, Asteasuko Udalak, Bidegoiango Udalak, Errezilgo Udalak, Hernialdeko Udalak eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmenaren onspena, Ernio inguruan dauden zortzi herrien artean bi urtez behin egiten den ibilaldiaren antolaketa arautzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari 333,00.-eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari jakinarazi, Larraulgo Udalean aurkeztu beharko duela izan dituen gastuen kitapena eta memoria.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **LARRAUL, ERNIO, LARRAUL, MENDI LASTERKETAREN 2016 URTERAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa, datorren martxoaren 20an ospatuko dela.

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa antolatzeko diru-laguntza eskaera, DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea, Asteasuko udalari lasterketan erabiliko diren hesiak eta kronometroa uzteko eskaera egin dezan, eskatzen duela A.A.J. jaunak Larraulgo Udalari.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2016 urteko aurrekontuetan aurreikusita dagoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea, urte amaieran kontuen kitapena eta memoria aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea eta Asteasuko udalari lasterketan erabiliko diren hesiak, podiuma eta kronometroa uzteko eskaera egitea, onesten da.


HIRUGARRENA: A.A. jaunari jakinarazi, Larraulgo Udalean aurkeztu beharko duela, Federazioak, mendi lasterketa hau burutzeko jarritako baldintza guztiak betetzen dituenaren erantzukizun adierazpen bat.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri A.A.J. jaunari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEKO HILTEGI MANKOMUNITATEARI 2016 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2015eko irailaren 23an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuten, Mankomunitateko kide diren Udalek



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

erakundearen langilearen soldata ordaindu ahal izateko, 2016urtean 36.000 eurotako ekarpena egin behar zutela. Larraulgo Udalari 94,00 euro suposatzen diolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2016 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 94,00 euroko diru kopuruan.

BIGARRENA: 94,00 euroko gastua onestea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEKO ATARIAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera, biztanleko 5 euro eskatzen dutelarik.

Ikusirik, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena 2016-2017 urte bitartean, Larraulgo Udalak goran aipaturiko diru-laguntza eman dezan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariari 612,5 eurotako diru-laguntza ematea. Hau da, 245 biztanle 2,5 euroko diru-laguntzarekin biztanleko.


BIGARRENA: Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena onartzea 2016 ekitaldirako, 2,5 euro biztanleko diru-laguntzarekin. Alkatea hitzarmena sinatzeko ahalmentzen delarik.

HIRUGARRENA: 612,5 eurotako gastua onestea, 2016 urteko aurrekontu orokorreko 422.334.00.02 partidaren kargura.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Atariari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **UDALHITZ NEGOZIOAZIO KOLEKTIBOARI BURUZ EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAK 2015-12-10ean EMANDAKO GOMENDIOARI ATXIKITZEA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, Eudel-Euskadiko udalen Elkarteak Udalhitz Negoziazio kolektiboari buruz, 2015eko abenduaren 10ean udalei ondorengo neurriak onartzeko gomendia egin zutela:

- 1.-2015ean %0,6ko funtsa zuzkitzea modernizaziorako eta produktibitateko.
- 2.-Langile publikoek 2012ko aparteko ordainsari gehigarria berreskuratzea.
- 3.-2016ko ekitaldian ordainsaria % 1 gehitzea.

Ikusirik, gomendio hauetatik at, "irailaren 11ko, 10/2015 Errege Dekretu Legegileak, non enplegu publikoetako eta ekonomiaren sustapenerako hainbat neurri hartzen diren", galdutako, opor egunak, norberaren gauzetarako egunak eta aintzintasun egunak berreskuratzen diren.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udalhitz negoziazio kolektiboari buruz, Eudel-Euskadiko udalen elkarteak 2015eko abenduaren 10ean emandako gomendioari atxikitzea.

BIGARRENA: Irailaren 11ko, 10/2015 Errege Dekretu Legegilearen babesean, non enplegu publikoetako eta ekonomiaren sustapenerako hainbat neurri hartzen diren, udaletxeko langileak galdutako opor egunak, norberaren gauzetarako egunak eta aintzintasun egunak berreskuratzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Eudel-eri ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### ***LARRAULGO UDALA ETA AIZTONDO KLASIKOA BATZORDEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA***


Ikusirik Aiztondo Klasiko batzordeak igorritako hitzarmenaren zirriborroa, Adunako Udalak, Alkizako Udalak, Larraulgo Udalak, Asteasuko Udalak, Villabonako Udalak eta Zizurkilgo Udalak onartu dezaten, non Aiztondo Eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirindularitza proba elkar lanean antolatzea arautzen den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmena sei urteetarako iraupena izango duela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Adunako Udalak, Alkizako Udalak, Larraulgo Udalak, Asteasuko Udalak, Villabonako Udalak, Zizurkilgo Udalak eta Aiztondo Klasiko batzordearen arteko hitzarmena onestea, non Aiztondo eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatuko den.

BIGARRENA: Aneli Urbieta Etxeberria Alkate-Lehendakariari, ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Aiztondo Klasika batzordeari ematea.

### HAMARGARREN PUNTUA

### **XIII. AIZTONDO KLASIKOA"PATXI ALKORTA MEMORIALA"ri 2016 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, XIII. Aiztondo Klasikoaren "Patxi Alkorta memorialaren" aurrekontua bidali duela, guztira 19.000 eurotako dena, datorren martxoaren 6an ospatuko dena. Larraulgo Udalari 810,64 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2016ko Udal aurrekontuetako 422.340.00.02 partidari aurrekontu nahikoa aurririkusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 810,64 eurotako ekarpena burutzea.


BIGARRENA.- 810,64 eurotako gastua onestea.

### HAMAİKAGARREN PUNTUA

### **FAKTURAK ETA ORDANKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

JOSE JULIAN PEREZ	2.604,59
ULAHI	363,00
CORREOS	2,30
LIZARRA	128,50
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	291,90
LIDOINSA	774,40
EBA ERKIZIA BRION	403,46
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	120,28



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LIDOINSA	605,00
KIROLZER	51,20
AURELIANO BERJOYO DIEZ	363,00
IMAZ COLOR	76,62
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.006,42
LARBA	393,25
TOLOMENDI	152,50
NOEMI ELIZABETH JOFRE	95,59
MANPEL	171,75
IT INFORMATICA	798,60
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	721,28
M.URANGA	61,89
IBERDROLA	370,95
IBERDROLA	38,68
IBERDROLA	108,22
IBERDROLA	191,93
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	55,40
MOVISTAR	54,30
MOVISTAR	19,05

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengoa,

### ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.042,21** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.


### **HAMARGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

